Miren RICO ARCELUS

PSIKOLOGIA

# TEKNIKA PSIKOLOGIKOAK

# BAKARKAKO CURRICULUM EGOKITZAPENA DUTEN IKASLEEKIN ERABILTZEKO

TFG/*GBL* 2013

upna
Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
*Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea*

Grado en Maestro de Educación Infantil
*/ Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua*

**Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua**

**Grado en Maestro en Educación Infantil**

Gradu Bukaerako Lana

Trabajo Fin de Grado

# TEKNIKA PSIKOLOGIKOAK BAKARKAKO CURRICULUM EGOKITZAPENA DUTEN IKASLEEKIN ERABILTZEKO


Miren RICO ARCELUS

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA

FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA**

**UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

**Ikaslea / Estudiante**
Miren RICO ARCELUS

**Izenburua / Título**
Teknika psikologikoak bakarkako curriculum egokitzapena duten ikasleekin erabiltzeko

**Gradu / Grado**
Haur Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Infantil

**Ikastegia / Centro**
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

**Zuzendaria / Director-a**
Fernando TREBOL UNSUE

**Saila / Departamento**
Psikologia eta pedagogia saila / Departamento de psicología y pedagogía.

**Ikasturte akademikoa / Curso académico**
2012/2013

**Seihilekoa / Semestre**
Udaberrik / Primavera

## Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapituluan hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute […] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3854/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagokikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta dizplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktiketan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituena. Azkenik, ECI/3854/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3854/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Oinarrizko prestakuntzako moduluak lan osoan zehar garatzen dira, izan ere lana egiterakoan kontuan hartu da graduan ikasitakoa, hau da, teknika psikologikoak, hezkuntza premia bereziko historia, kontzeptua…

Didaktika eta diziplinako modulua lanaren laugarren atalean zehazten da, hots, teknika psikologikoek eskolan duten eragin soziala, psikologikoa eta pedagogikoa izeneko atalean. Bertan ikus daiteke teknika horiek didaktikoki nola landu eta zein eragin duten.

Halaber, Practicum modulua laugarren ataleko egiaztatze enpirikoan ageri da. Practicumak bidea eman digu teorian ikasitakoa praktikan behatzeko eta ikasleen garapena nola ematen den ikusteko.

Beste alde batetik, ECI/3854/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko da "Antecedentes, objetivos y cuestiones" atala, baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.

## Laburpena

Gaur egungo hezkuntza sisteman ezinbestekoa da edozein ikaslerekin hainbat teknika psikologiko erabiltzea, denen hezkuntza eta heziketa bermatzeko. Jarraian aurkezten dizuedan lana, teknika psikologikoak bakarkako egokitzapen curricularra duten ikasleekin erabiltzean datza. Hortaz, lan hau Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleengan zentratzen da. Egia da gure gizartean aniztasunari ematen zaion arreta geroz eta nabarmenagoa dela, eta Hezkuntza Premia Bereziak izan ez arren, denok premia ezberdinak ditugula, horregatik ikasgelan edozein ikaslerekin eta irakasle jarduera hezitzailea egiteko teknika psikologikoak erabili behar dira.

Lanean zehar irakasle batek ezagutu behar dituen oinarrizko edukiak eta tekniken nondik norakoak jaso dira. Oinarrizko edukiak edo kontzeptuak honako hauek dira: haurraren adin-tarteak eta garapen-aldiak, Hezkuntza Bereziaren ibilbide historikoa, Curriculum Egokitzapen kontzeptua eta egokitzapena egiteko eman beharreko pausuak, Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleekin esku hartzen duten profesionalak, Pedagogia Terapeutikoko irakaslearen lanean zentratuz eta esku hartzeko momentuan erabili beharreko teknika psikologikoak ikaslearen hezkuntza prozesua hobetzeko.

*Hitz gakoak*: Hezkuntza Berezia; teknika psikologikoak; Curriculum Egokitzapena; Esku hartze Psikologikoa Hezkuntza eremuan.

## Resumen

En el sistema educativo actual es imprescindible el uso de las técnicas psicológicas más avanzadas para garantizar una educación y formación adecuada con cualquier tipo de alumno/a. El trabajo que os presento a continuación se basa en dichas técnicas psicológicas para ser utilizadas con el alumnado que tiene necesidades educativas especiales. Indudablemente la atención que se le da a la inclusión en los centros educativos es cada vez más notable. Por eso mismo, aunque un/a alumno/a no tenga una adaptación curricular, todos tenemos diferentes necesidades y, por ello, en clase tendremos que usar diferentes técnicas psicológicas para educar.

En este trabajo se presentan contenidos básicos y técnicas que todo docente debería conocer. Entre otros, reseñamos los siguientes: desarrollo evolutivo y fases en la edad infantil, recorrido y evolución histórica de la Educación Especial, el concepto de la Adaptación Curricular y los pasos a seguir para llevarla a cabo, tipología de los profesionales que trabajan con alumnado de necesidades educativas especiales, centrándose en el trabajo del profesorado de Pedagogía Terapéutica y en las técnicas psicológicas que utilizan en sus intervenciones para mejorar el proceso educativo de este tipo de alumnado.

*Palabras clave*: Educación Especial; técnicas psicológicas; Adaptación Curricular; intervención psicológica en el ámbito educativo.

## Abstract

Nowadays it is really important to use diverse psychological techniques with any student to assure the right of being educated of everybody. This essay introduces some methods to carry out with students with Individual Curriculum Adaptations. Hence, this work is focused on people with Special Educational Needs. Nevertheless these days diversity is understood as a global term and therefore, these techniques could be used at any time teaching to any pupil, disabled or not, in the classroom.

This paper gathers basic contents and approaches a teacher should know in order to work with an inclusive perspective. These are the concepts to take into account: age and development stages, the historical overview to Special Education, The Curriculum Adaptation and its step by step process, the specialists that take part in the learning process of students with Special Needs and psychological procedures and means to apply to their educational process.

*Keywords*: Special Education; Psychological techniques; Curriculum Adaptation; Psychological Intervention in Education.

# Aurkibidea

**Sarrera**
**1. Antecedentes, objetivos y cuestiones** 1
1.1. Antecedentes 1
1.1.1. Recorrido y evolución histórica de la Educación Especial 1
1.1.2. Técnicas psicológicas de intervención en el aula y diferentes enfoques teóricos 5
1.1.3. Intervención del profesorado especialista en Pedagogía Terapéutica 10
1.2. Objetivos 12
1.3. Cuestiones 13
**2. Oinarri teorikoa: justifikazioa eta hezkuntza praktikarekin duen erlazioa** 14
2.1. Inklusioaren beharra hezkuntza sisteman. 15
2.2. Berdintasun eta ezberdintasunaren kontzeptuak 17
2.3. Esku hartze motak 20
2.4. Teknika psikologikoen erabilera emaitzak hobetzeko. 25
**3. Lanaren garapena : hasierako kontzeptu eta historia, aurre ikuspenak. Egilearen arrazoizko planteamendua** 28
3.1. Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleekin nola esku hartu. 28
3.2. Teknika psikologikoak eta bere aplikapena. 30
3.2.1. Portaera arazoak dituzten ikasleekin erabili beharreko teknika psikologikoak 30
3.2.1.1. Jokabidea mantentzeko eta garatzeko teknika operanteak 32
3.2.1.2. Jokabidea murrizteko teknikak 33
3.2.2. Irakurketa idazketa prozesuan zailtasunak dituzten ikasleak. 36
3.3. Esku hartzerako protokolo baten diseinua egin eta honen erabilera 39
3.3.1. Aniztasunaren protokoloa 39
3.3.2. Pedagogia Terapeutikoko profesionalaren protokoloa 40
**4. Eskolan duen eragin soziala, psikologikoa edo pedagogikoa** 43
4.1. Teorikoa 43
4.2. Egiaztatze enpirikoa 45
4.2.1. Nire esperientzia 45
4.2.2. Praktikumetan behatutakoa 49
**Ondorioak** 51
**Bibliografia erreferentziak** 53
**Eranskinak** 55
1. Jean Piageten estadioak 55
2. Lawrence Kohlbergen garapen moralaren estadioak 57
3. CEI baten adibidea 60
4. Gurasoekin erabili beharreko bilera fitxa 64
5. Hezkuntza Premia Berezien sailkapena 66
6. Haur Hezkuntzan curriculuma neurtzeko taulak 71
7. Argazkiak Naiararekin erabiltzen diren teknikak argitzeko 77

## SARRERA

Oraingoan gradu amaierako lana burutzea egokitu zait. Hau egiteko ondorengo gaia hautatu dut: "Teknika psikologikoak bakarkako curriculum egokitzapena duten ikasleekin erabiltzeko", nire tutorea Fernando Trebol delarik.

Graduan zehar gai honekin loturik eduki asko ikasi ditugu; esaterako, teknika psikologiko ezberdinak, adituek gai honen inguruan diotena, curriculum egokitzapenaren kontzeptua, Hezkuntza Bereziaren historia, Aniztasunaren trataera, Didaktika, etab.

Bestalde, teknika psikologikoak bakarkako curriculum egokitzapena duten ikasleekin erabiltzeko, oso argi izan behar ditugu hezkuntza bereziaren aurrekariak. Hori argi izanik, curriculum egokitzapena duten ikasleekin esku hartzeko dauden teoriak ere jakin beharko ditugu.

Oro har, Hezkuntza Premia Bereziko arloan kontuan hartu behar diren hainbat ezaugarritatik aparte, ikaslearen inguruarekiko komunikazio-gaitasunaren ahalmena eta esku hartze-antolaketa ere aintzat hartzea agertzen da lan honetan, ikaslearen inguruan diren ikasle, irakasle eta familiaren arteko elkarlanek eta koordinazioek duten garrantzia azpimarratuz.

Azkenik, lanean zehar hainbat mapa kontzeptual ageri dira. Horien funtzioa da azalduriko teoriak modu laburrean eta ikusgarrian azaltzea.

# 1. ANTECEDENTES, OBJETIVOS Y CUESTIONES

En este apartado, en primer lugar se menciona el recorrido y la evolución histórica en la atención a la Educación Especial en las escuelas, según la normativa legal en España; así como una referencia a las técnicas psicológicas utilizadas para la intervención con el alumnado que precisa de atención a la diversidad y la intervención del profesorado especialista en Pedagogía Terapéutica. A continuación hay una relación con los objetivos del trabajo, y finalmente expongo las cuestiones que me han ido surgiendo antes y durante el trabajo.

## 1.1. Antecedentes

### *1.1.1. Recorrido y evolución histórica de la Educación Especial*

La Educación Especial es una disciplina relativamente reciente. La ruta histórica de la Educación Especial en España se divide en cuatro partes; antecedentes, la institucionalización de la Educación Especial, pruebas de consolidación y el desarrollo.

a) Antecedentes

En España no se puede hablar de la sistematización de la Educación Especial hasta principios del siglo XIX (1802), ya que en esa época fue cuando se creó en Madrid el colegio para sordomudos. Anteriormente, a partir del siglo XVI, se dieron algunos progresos, aunque por la situación sociopolítica de esa época no se desarrolló el concepto de los niños con discapacidad y mucho menos la inmersión de dichos alumnos.

b) La institucionalización de la Educación Especial

En el siglo XVIII se dieron los primeros pasos, aunque esta educación solo llegaba a los sordomudos y ciegos. La mentalidad de aquella época también perjudicaba al comportamiento del docente, ya que no estaban concienciados en la escolarización de dicho alumnado y los tenían como enfermos.

A los discapacitados físicos y psíquicos durante siglos se los ha dejado de lado. En el año 1970 la política estatal empezó a dirigirse en crear colegios especiales, a pesar de que la Ley Moyano les dejase escolarizar en colegios ordinarios.

c) Pruebas de consolidación

En el siglo XX se empezaron a extender los beneficios de la educación especial a otros colectivos. En Barcelona y Madrid fue determinándose el camino que tenían que seguir los discapacitados con retraso mental.

d) Desarrollo

Después de la República se establecen las bases para la Educación Especial:

En el año 1938 se creó la ONCE. En el año 1945 se da la proclamación de la ley de Educación Primaria. Esta ley fue el inicio oficial de la educación especial en España.

En el año 1970 la Ley General de Educación (L.G.E.) diferencia el sistema educativo general y especial. Esta ley no va por el camino de la integración. Su objetivo es garantizar la coherencia en el sistema educativo y la reorganización del Ministerio de Educación.

En la Constitución de 1978 se da el primer paso al camino de la integración. Esta ley acepta las diferencias entre el alumnado y plantea las dificultades que tienen las personas con discapacidad.

En el año 1980 (O.M.S.) hace una clasificación entre la discapacidad y minusvalía. Esta clasificación no fue adecuada ya que la terminología es confusa, se etiqueta al alumnado dividiéndolo en grupos y no se atiende a la diversidad.

En 1982 se crea la primera ley con la filosofía de la normalización, Ley de Integración Social de los Minusválidos (L.I.S.M.I). Entre los aspectos positivos de esta ley cabe resaltar que tiene en cuenta las diferentes capacidades de las personas y que muestra las medidas que debe adoptar la Educación Especial.

El Real Decreto del año 1985 tiene estos dos objetivos principales: fomentar la integración en los colegios ordinarios y cambiar la organización y los recursos de los colegios (las orientaciones psicológicas, la Pedagogía Terapéutica, la logopeda...).

En 1990 la L.O.G.S.E. sustituye a la L.G.E. de 1970. En esta ley se establecieron los conceptos de la Educación Especial y de las necesidades educativas especiales. En esta ley también se diferencian las modalidades de escolarización; ordinaria, especial y compartida.

En el Real Decreto 696 del año 1995 dice que el Ministerio de Educación y Ciencia se encargará de la detección precoz, evaluación, corregir cuanto antes los efectos causados por las discapacidades y prevenir que no vuelvan a aparecer, así como garantizar el desarrollo de las capacidades. La finalidad de este decreto es la mejora de la calidad de vida, para conseguir una educación más integradora.

Es imprescindible mencionar en este trabajo lo que dice la Ley Orgánica de Educación (L.O.E) sobre la Educación Especial, desde el año 2006 hasta nuestros días. Los tres principios básicos de esta ley son los siguientes:

- Educación de calidad para todos. El objetivo de este principio es mejorar las calificaciones generales y reducir la cantidad de jóvenes que abandonan los estudios antes de terminar la Educación Obligatoria. Dentro de este principio se haya la igualdad de oportunidades para todos.

- El segundo se basa en el principio del esfuerzo: una responsabilidad y un esfuerzo compartido entre los miembros de la comunidad educativa para atender mejor la diversidad.

- Por último, el tercer principio es el de la equidad en la educación: la responsabilidad del alumnado con necesidades educativas especiales, el principio de la integración (la igualdad de oportunidades) y la normalización de la escolarización de dicho alumnado.

(Bautista, 1993; Lou, 1998; Insausti, 2010; Trebol, 2013).




**1. irudia**. Mapa. Recorrido y evolución histórica de la Educación Especial.

*1.1.2. Técnicas psicológicas de intervención en el aula y diferentes enfoques teóricos*

Para la intervención en el aula con niños con necesidades educativas especiales, existen diferentes modelos teóricos; el modelo psicoanalítico, conductista, humanista, cognitivo y el modelo sistémico. Para la intervención es necesario saber las teorías de estos modelos, ya que gracias a ellos podemos saber cómo intervenir.

- Modelo psicoanalítico

El psicoanálisis fue el primer sistema de psicoterapia estructurado en aparecer. Este modelo fue fundada por Sigmund Freud[1] alrededor del año 1896, comenzando el psicoanálisis como un intento de comprender y tratar la neurosis.

El psicoanálisis puede ser definido como un método y técnica de tratamiento psicoterapéutico basada en la exploración del inconsciente a través de la asociación libre. Las características de este modelo o técnica son; la interpretación, la actitud no crítica y la evitación de cualquier tipo de consejo.

El psicoanálisis se suele definir desde cuatro niveles:

- Un método de investigación de los significados mentales inconscientes.

- Un método de psicoterapia basado en la interpretación de las relaciones transferenciales, resistencia y deseos inconscientes.

- Un conjunto de teorías psicológicas sobre el funcionamiento de la mente y teoría clínica sobre los trastornos mentales y su tratamiento.

- Un enfoque filosófico o general para entender los procesos de las culturas y la actividad social.

[1] Sigmund Freud fue un médico neurólogo austriaco, padre del psicoanálisis y una de las mayores figuras intelectuales del siglo XX. (http://es.wikipedia.org/).

- Modelo conductista

El modelo conductista apareció por la insatisfacción de la teoría y práctica psicoanalítica y por el desarrollo de la psicología del aprendizaje. El punto de partida de esta terapia es la consideración de que la mayor parte de la conducta es aprendida, por lo que los principios de las teorías del aprendizaje son aplicables a los tratamientos.

Este modelo se centra en la conducta inadaptada y en la conducta normal y la anormal que adquieren y modifican por los mismos principios. Por ello según esta teoría la conducta desadaptativa puede sustituirse por otra que sea adaptativa.

Según esta teoría existen barias técnicas de modificación de conducta (Esarte, 2013):

- Modelado: El modelado es un proceso de aprendizaje observacional, en el que la conducta de un individuo o un grupo (el modelo), actúa como estimulo para generar conductas, pensamientos o actitudes semejantes, en otras personas que observan la actuación del modelo.
- Economía de fichas: Son procedimientos dirigidos a establecer un control estricto sobre un determinado ambiente, para controlar las conductas de una persona o grupo. Se introduce, en el medio del paciente, un reforzador artificial generalizado, intercambiable por los reforzadores naturales. Este reforzador es generalizado, potente y completamente controlable. La utilización del sistema de economía de fichas permite introducir una o varias conductas, alterar la frecuencia con que las conductas se emiten, eliminar conductas desadaptativas y controlar las conductas de una sola persona o las de un grupo.

- Modelo humanista

El modelo humanista se crea como alternativa al psicoanálisis y al conductismo. Dentro de las concepciones humanistas destacan la Terapia Gestáltica, el Análisis Transaccional y la Psicoterapia centrada en el cliente.

- Terapia Gestáltica: Esta terapia enfatiza el aquí y el ahora y los elementos emocionales. Trata de evitar las especulaciones e interpretaciones sin fin. El método terapéutico tiene como fin promover el "darse cuenta" y da mucha importancia a la responsabilidad, la cual incita al paciente a hacerse responsable de su conducta. Algunos de los principios de la terapia gestáltica más importantes y aplicables son: hablar con, no sobre o de (permitir hablar "acerca de nada ni de nadie'', esté o no presente aquí), hacerse responsable (aceptar que no hago ni digo nada que no quiero), no juzgar, no interpretar (interpretar significa asegurar que uno conoce las motivaciones del prójimo para hacer o decir lo que hace o dice), no disculparse (está íntimamente relacionado con hacerse responsable. Si te agredo y luego me disculpo, no te dejo en libertad de agredirme),… (http://manuelgross.bligoo.com/).
- El Análisis Transaccional es un sistema de psicoterapia individual y social. Fue propuesto por Eric Berme en los años 1950. Él mantiene la consideración positiva del otro como perteneciente a la naturaleza. El objetivo de la terapia es ayudar a la persona a restaurar o potenciar la posición existencial original: "yo estoy bien, tú estás bien". (http://es.wikipedia.org/).
- La psicoterapia centrada en el cliente es la más influyente, por ser el modelo humanista con más apoyo empírico. Este sistema parte de la confianza radical en el paciente y el rechazo al papel directivo del terapeuta. El elemento central de la terapia es la actitud del terapeuta (actitud de escucha y de reflejo de lo que dice el cliente, consideración positiva incondicional[2] hacia el paciente, empatía[3] y la congruencia[4]). (Trebol, 2013).

[2] Consideración positiva incondicional: El terapeuta brinda la oportunidad al cliente a expresar sus sentimientos generalmente inhibidos para facilitar su auto aceptación. Para ello le acepta sin condiciones de valor y evita corregirle o dirigirle hacia criterios preestablecidos. Esta actitud conlleva un aprecio hacia los sentimientos y la persona del cliente con todas sus aparentes contradicciones e irracionalidades. (Trebol, 2013)

[3] La empatía: refiere al esfuerzo continuo del terapeuta por apreciar y comunicar a su cliente una comprensión de los sentimientos y significados expresados por este. Esto se hace mediante un ciclo de tres fases: 1) La resonancia empática del terapeuta a las expresiones del cliente, 2) la expresión de empatía por parte del terapeuta al cliente y 3) la recepción del cliente de la respuesta empática del terapeuta. (Trebol, 2013)

Patterson, menciona algunos pasos necesarios para lograr los objetivos de una educación humanista:

- Los programas deben ser más flexibles y proporcionar mayor apertura a los alumnos.
- Se debe proveer el aprendizaje significativo vivencial.
- Se debe dar prioridad a las conductas creativas de los alumnos.
- Se debe propiciar mayor autonomía a los alumnos
- Se debe dar oportunidad a la cooperación de los alumnos.
- Se debe dar oportunidad para que los alumnos hagan evaluación interna.

- Modelo cognitivo

La psicoterapia cognitiva surgió en los 50 a partir de diversos cambios sociales y científicos. El modelo cognitivo se basa en el pensamiento, y en como a través del pensamiento se puede modificar la conducta. El aprendizaje se realiza mediante la relación de diversos aspectos registrados en la memoria, sin importar que hayan ocurrido en tiempos y espacios distintos para producir conocimientos.

La teoría cognitiva está basada sobre un proceso de información, resolución de problemas y un acercamiento razonable al comportamiento humano. Los individuos usan la información que ha sido generada por fuentes externas (propagandas) y fuentes internas (memoria). Esta información de pensamientos procesados, transferidos dentro de significados o patrones y combinan para formar juicios sobre el comportamiento.

Características generales de las terapias cognitivas son:

- Utilizan métodos activos.
- El terapeuta adopta un papel directivo.

---

[4] La congruencia: Se refiere a la autenticidad del terapeuta ante su cliente particular. Para que este pueda mostrarse empático ha de ser congruente con sus propios sentimientos generados en la relación terapéutica. Tal congruencia se muestra tanto a nivel verbal como no verbal. (Trebol, 2013)

- Siguen pautas muy estructuradas.

- Tienden a ser de corta dirección.

(https://sites.google.com/site/elmodelocognitivo/).

- Modelo sistémico

El desarrollo histórico de los modelos sistémicos va unido a la evolución de la terapia familiar. El enfoque sistémico, aplicado al campo educativo, contempla la conexión entre los individuos y el contexto, teniendo en cuenta sus interacciones recíprocas en un constante feed-back de comunicación.

La terapia sistémica es una disciplina terapéutica que se aplica para el tratamiento de disfunciones, trastornos y enfermedades concebidas como expresión de las alteraciones en las interacciones, estilos relacionales y patrones de comunicación humano. La estrategia terapéutica principal es trasladar la acción terapéutica fuera del ámbito de lo individual y situarla en los patrones de interacción.

Campan, E. (2010). *El modelo sistémico aplicado al campo educativo*. [Disponible en (29/04/2013): http://www.iaf-alicante.es/]; (http://www.e-torredebabel.com/; Trebol, 2013).




**2. irudia**. Mapa. Técnicas psicológicas de intervención en el aula y diferentes enfoques teóricos.

### *1.1.3. La intervención del profesorado especialista en Pedagogía Terapéutica*

Para definir cual tiene que ser la intervención del profesorado especialista en Pedagogía Terapéutica, es imprescindible fijar cuáles son sus funciones. Las funciones pueden variar según el Proyecto Curricular del centro. En todo caso, hay algunos requisitos mínimos que deben de cumplir como profesionales y las principales normas de referencia son las siguientes:

- Colaborar con el profesorado, tutor y orientador en la detección del alumnado con NEE.

- Colaborar en la evaluación psicopedagógica del alumnado al que se le han detectado NEE.

- Elabora, junto con el profesorado, las adaptaciones curriculares individualizadas (ACI).

- Colaborar con el profesorado en el seguimiento y evaluación del alumnado y de los programas de intervención, procediendo al reajuste continuo de estos últimos, si fuera necesario.

- Elaborar, junto con el profesorado, las adaptaciones de los materiales didácticos que el alumnado precisa para acceder a los aprendizajes, especialmente, para el alumnado con discapacidad visual y auditiva.

- Colaborar con el profesorado tutor en las relaciones con las familias para el seguimiento del alumnado con NEE.

- Intervenir directamente con el alumnado con NEE en el desarrollo de los aspectos determinados en las correspondientes adaptaciones curriculares y en los programas de intervención individual.

- Colaborar con los Equipos Específicos del CREENA en cuantas actuaciones sean necesarias para la atención del alumnado con NEE.

Por otro lado, son 5 los ámbitos donde interviene el profesor especialista en P.T.:

- A nivel de centro, donde dicho profesor colaborará en la toma de decisiones respecto a metodología, organización y criterios de evaluación. En este ámbito el profesor de P.T. también participará en la elaboración de los criterios de atención a la diversidad.

- A nivel de Equipo Educativo, que colaborará en la prevención de dificultades de aprendizaje y orientación a profesores sobre el tratamiento de la misma. El profesor de P.T. colaborará en la adaptación y elaboración de materiales didácticos adaptados y orientará a profesores tutores sobre evaluación y promoción de los niños con NEE.

- A nivel del aula, el profesor de P.T. colaborará en la planificación y desarrollo de los procesos de enseñanza-aprendizaje en el aula y en colaboración con el tutor y orientador elaborará y desarrollará la adaptación curricular individual (ACI).

- Atención directa a alumnos. El profesor de P.T. deberá realizar atención directa con niños con NEE en el ambiente más normalizado posible. La atención

se organizará a principio de curso en los espacios y tiempos que determinen el Jefe de estudios y el orientador. Los apoyos se pueden realizar dentro y fuera del aula.

- Con padres. Los especialistas en pedagogía terapéutica, junto con el tutor y orientador deberán realizar mínimo dos reuniones durante el curso (una al principio y otra al final del curso). A lo largo del curso, se les informará a las familias sobre el proceso de enseñanza-aprendizaje del alumno.

(Martinez, 2013; Trebol, 2013).




**3. irudia.** Mapa. La intervención del profesorado especialista en pedagogía terapéutica.

## 1.2. Objetivos

Todo docente que tenga alumnado con necesidades educativas especiales debe tener en cuenta los siguientes objetivos:

- Cómo intervenir con alumnado de necesidades educativas especiales.

Cualquier profesor debe de saber cómo tiene que intervenir con un alumno con NEE, ya que, en el sistema educativo actual, en casi todas las aulas ordinarias hay algún niño

con cualquier tipo de discapacidad. Por ello en el trascurso de este trabajo se desarrollará la respuesta a este objetivo.

- Conocer cuáles son las técnicas psicológicas, para luego aplicarlas en el aula.

Las técnicas psicológicas son muy eficaces para garantizar al alumno con NEE una educación de calidad. Gracias a estas técnicas, que se detallan más adelante en este documento, conseguiremos que el alumnado mejore socialmente, psicológicamente y pedagógicamente.

- Saber elaborar un protocolo de intervención en el aula y llevarlo a cabo.

Los protocolos generalmente ayudan a saber qué hacer ante una situación y/o ordenar el trabajo a realizar. Por ello, en el tercer apartado de este trabajo se detallan las fases del protocolo.

### 1.3. Cuestiones

En el transcurso de la preparación de este trabajo de fin de grado, antes de su realización, y durante el mismo, han surgido cuestiones relacionadas con el tema elegido. Posteriormente se dará respuesta a las mismas en las explicaciones expuestas en los siguientes puntos.

- ¿Qué recursos personales necesito para educar a un alumno con Necesidades Educativas Especiales?
- ¿Qué recursos materiales debo usar con alumnos con Necesidades Educativas Especiales?
- ¿Cómo introducir la igualdad y la diferencia en la dinámica de la escuela?
- ¿Cómo podemos llevar a cabo una coordinación adecuada entre profesional, familia y alumno?
- ¿Qué técnicas puedo usar en el aula ante un niño con necesidades educativas especiales?
- ¿Es conveniente sacarle al niño con necesidades educativas especiales del aula?

## 2. OINARRI TEORIKOA: JUSTIFIKAZIOA ETA HEZKUNTZA PRAKTIKAREKIN DUEN ERLAZIOA

Bigarren atal honetan teknika psikologikoen garrantziaren justifikazioa ageri da, honek hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleekin, eta bereziki bakarkako curriculum egokitzapena duten ikasleekin, burutu beharreko esku hartzearen nondik norakoak zehazten dira eta hezkuntza praktikarekin erlazioa zuzena azalduko da.

Bertan nik Graduan zehar ikasi eta kontsultatutako hainbat adituen teoriak ageri dira; portaeran oinarritzen den Skinner-en teoria, saria eta zigorraren inguruan Paulov-ek dioena, Ausubel-en ikaskuntza esanguratsuaren inguruko teoria, Banduraren ikaskuntza sozialaren teoria, Jean Piaget-en garapen estadioak eta Lev S.Vigotskiren testuinguruaren eraginak garapenean duen teoria. Teoria guzti hauek kontsultatuta, lau atal ezberdinetan aurkeztuko da lana.

- Inklusioaren beharra hezkuntza sisteman.
- Berdintasun eta ezberdintasunaren kontzeptuak.
- Esku hartze motak.
- Teknika psikologikoen erabilera emaitzak hobetzeko.

Atal hauek teknika psikologikoak bakarkako curriculum egokitzapena duten ikasleekin erabiltzeko gaiarekin estuki loturik daude. Batetik, hezkuntza inklusiboaren erronka haur eta gazte guztiei kalitatezko hezkuntza eskaintzea da. Hortaz, inklusioaren beharrari esker Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleak ez dira baztertuak izango. Bestalde, behar bereziak dituzten ikasleak ezberdinak diren kontzeptua ezabatzeko asmoz, berdintasun eta ezberdintasun kontzeptuen inguruan mintzatzea ezinbestekoa da. Azken bi atalei dagokienez, gaiari estuki loturik daude esku hartze estiloak zeintzuk diren jakitea ezinbestekoa baita teknika ezberdinak erabiltzeko ikasleen emaitzen lorpena izateko.

## 2.1. Inklusioaren beharra hezkuntza sisteman

Inklusioa, beste ezer baino gehiago, eskubidea da. Argi dago oso kontzeptu zabala dela, eta horregatik argitu beharra dago.

Hezkuntza inklusiboa[5] UNESCOk babesturiko hezkuntza mugimendua da eta Guztiontzako Eskola programaren barruan sartzen da. Haur eta gazte guztiei kalitatezko hezkuntza bermatzea da inklusioaren ikuspegia edo erronka, hortaz hezkuntza sisteman ikuspegi hau ezinbestekoa da. Horrek esan nahi du ikasle guztiak onartuak izan behar direla, eta guztiek ere eskolan parte hartuko dutela, bakoitzak dituen ezaugarri edo gaitasunekin.

Beraz, aniztasuna ez da ikusten gainditu beharreko arazo gisa, guztien ikasketari laguntzeko baliabide aberasgarri gisa baizik.

Hezkuntza sisteman zalantzarik gabe, ikasleei desberdintasunari buruzko informazioa ematea eta gai hori lantzea ezinbestekoa da edozein pertsonaren bazterketa saihesteko. Bestalde, urritasuna duten pertsonekin nola aritu erakustea oso lagungarria izango da elkarbizitza sustatzeko, pertsonak hobeto onartzeko eta enpatia garatzeko. Haurtzarotik hasi behar gara balioetan hezten, aurretik aipaturiko helburuak lortzeko. Beraz, ikasgela eta eskola inklusiboak sortzen baditugu, desberdintasunak errespetatuko dituzten eta desberdin ikusten dena baztertuko ez duten gizarte inklusiboak lor ditzakegu. Hezkuntza sistematik inklusioaren beharra sustatuz, gizartea aldatu eta denen onarpena lortuko dugu.

Honakoak dira ikuspegi inklusiboaren ezaugarriak:

- Ikuspegi honek eredu soziala defendatzen du.
- Haur talde baten beharrei erantzuteko eskola nola aldatuko den zentratzen da, ez haurraren integrazioa aurrez osatuta dagoen talde batean.

[5] Definizioa: Eskola inklusiboa guztiontzat den kalitatezko eskola bat da, bazterketarik egiten ez duena. Ikasle guztiak beharrezkoak dira, bakoitzaren desberdintasunek irakaskuntza prozesua aberasten dutelako. (Iza, 2013)

- Gizarteratze printzipioan sinestea: desberdintasunek aberasten dutela sinestea eta gizabanakoaren ezaugarriak, aukerak, garapen kognitibo eta afektiboak errespetatuz gizarteratzea sustatzea.

Hezkuntza inklusiboaren printzipioak ordea, honakoak dira:

- Aniztasuna onartzen duten ikastetxeek giza eskubideak eta ezberdintasunen aurreko errespetua bultzatzen dute. Dibertsitatea aberastasuntzat hartzen da.
- Curriculum zabala, komuna eta malgua izango da: eskolan, ikasle guztientzako curriculum komuna egongo da baina ikasle guztiek modu ezberdinean ikasten dutenez, indibidualki aldaketak egin daitezke. Ikasteko estrategia praktikoen alde jokatzen da ( adibidez, ikasketa kooperatiboa)
- Irakaskuntza eta ikaskuntza interaktiboa: teknologia berrien erabilpenak, talde interaktiboak etab. Hala ere, irakaslea izango da guzti hau egokitu eta kudeatuko duena.
- Eskolan eta lan kooperatiboan zentratutako laguntza.
- Gizartearen sektore guztien arteko kooperazioa: gurasoen kooperazioa, komunitatearen kooperazioa…

(Iza, 2013; http://eskola-inklusiboa.blogspot.com.es/; http://creena.educacion.navarra.es/).




**3. irudia**. Mapa. Inklusioaren beharra hezkuntza sisteman.

## 2.1. Berdintasun eta ezberdintasunaren kontzeptuak

Berdintasun eta ezberdintasun kontzeptuak hezkuntzan oso erabiliak dira, askotan baieztapen okerrak eginez. Horregatik hauek definitu eta azaltzea ezinbestekoak dira, gizaki guztiak era berean berdinak eta ezberdinak baikara.

Gizaki guztiok behar berdinak ditugu eta denok eskubide berdinak izan beharko genituzke. Hau hezkuntzarekin lotzen badugu, hezkuntza sistemako partaide orok elkarren artean berdintasunak baditugula esan beharra dago. Eskola gehienetan, ikasleen adina izaten da taldekatzeko irizpide nagusia, homogeneotasuna bilatzeko asmoz. Hala ere, errealitatean adinak baino bakoitzaren gaitasunak eta nortasunak gehiago bereizten gaitu. Izan ere, talde guztiak zenbat eta heterogeneoagoak izan, geroz eta aberatsagoak izango dira. Beti ere ikaskuntzan kontuan hartuta exijentzia maila eta eskaini beharreko arreta desberdina izan behar duela beharraren arabera; eskola inklusiboaren ezaugarri nagusienetakoa bermatuz.

Hori dela eta, taldekatzeak jaioturtearen arabera elkartu ordez, Jean Piagetek zehazten dituen garapen aldien arabera (Piagetek proposatzen dituen estadioak eranskinetan garatuak ageri dira) elkartuko bagenitu ikasle taldeak askoz ere aberatsagoak izango lirateke, elkarreraginak etekin handiak dakartzalako. Honi esker hezkuntza premia bereziko ikasleek ez lukete beren hezkuntza maila hain desberdina ikusiko.

Bestalde, Lawrence Kohlberg-en ekarpena dugu, garapen moralaren teorian oinarritzen dena. Honek bat egiten du Piagetekin, morala fase eta etapa batzuetatik pasaz garatzen dela esanez. Kohlberg-ek dioenez, etapa horiek berdinak dira gizaki guztientzako eta orden berean ematen dira. Kasu honetan, Piagetean ez bezala, garapen moralaren etapa guztiak ez dira heltze biologikoan gertatzen, ingurugiroaren elkarreraginaz baizik. Bere teoria esaldi honetan laburbildu daiteke; joka ezazu beste edonork egoera horretan jokatzea nahiko zenukeen bezala. Bizitzan gatazka uneak badirela dio Kohlberg-ek, eta egoera horietatik nola irten behar garen azaltzen du. Lawrence Kohlberg-ek proposatzen dituen faseak bigarren eranskinean ikus ditzakezue. (http://sozioafektibo.wordpress.com/).

Aipatu bezala, ikasteko prozesuetan ikasle guztiak desberdinak dira, jarrera, interes, motibazio, gaitasun, ikasteko estilo eta aurreko esperientziatan. Ezberdina hitza honela definitzen da Elhuyar hiztegian: bestelako ezaugarri edo nolakotasunak dituena. Gaur egungo hezkuntza sisteman ematen den mailakatzean, ikasle guztiak desberdinak direla kontzeptua izan arren, berariazko hezkuntza premiak dituzten ikasleak askoz ezberdinagoak kontsideratzen dira.

Hezkuntza premia berezien kontzeptua ulertzeko, hona hemen hainbat egileren aipamenak (Trebol, 2010):

Brennan-ek honela definitu zituen Hezkuntza Premia Bereziak: «Ezintasunak (fisikoa, zentzumenena, intelektuala, emozionala, soziala edo mota horien arteko edozein konbinaziorena) eragina du ikaskuntzan, eta beharrezko egiten du curriculum berezi edo aldaturako sarbide bat edo guztiak eskaintzea, edo ikaslea egoki eta eraginkortasunez hezteko behar diren ikaskuntza-baldintza egokitu berezi batzuk eskaintzea. Premia berezia behin-behinekoa edo iragankorra nahiz iraunkorra izan daiteke, eta arina nahiz larria».

González Manjón-ek dio: «Hezkuntza-premia bereziak askotarikoak izan daitezke. Curriculumera sartzeko baliabide berezien hornidura adieraz dezakete, adibidez, ekipamendu berezia edo irakaskuntza-teknika espezializatuak eska ditzakete; edo curriculuma egokitzeko premia adieraz dezakete, edo hezkuntza bideratzen den gizarte testuinguruari eta klima emozionalari arreta berezia emateko premia».

Sanz del Río-ren arabera «Ikasleen ikaskuntza-arazoek izaera interaktiboa dute, alde batetik, beren egoera pertsonalen nahiz eskola-ingurunearen ezaugarrien araberakoak direlako. Baina, era berean, kontzeptu erlatiboa ere bada, HPBak kasu bakoitzean finkatzen diren helburuen eta erabiltzen diren ebaluazio-metodoen araberakoak baitira. Hortaz, HPBen kontzeptuak eskolan, hezkuntza-erantzunean, jartzen du enfasia, eta ikaslearen garapenari berari loturiko arazo espezifikoak erlatibizatzen ditu».

Hurrengo taulan ikus daiteke zeintzuk diren hezkuntza premia berariazko ikasleak (Iza, 2013). Argitzekoa da berariazko hezkuntza premiak dituzten ikasleak kategoria ezberdinetan sailkatzen eta sailkatzeko modu asko daudela eta taldekatze horiek ikuspuntu erabilgarri bati begira eta hezkuntza erantzun egokiagoa emateko egiten dira.

1. **taula.** Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak.

<table>
<tr><td rowspan="8">Berariazko hezkuntza premiak dituzten ikasleak</td><td>Ikasteko aparteko zailtasunak dituzten ikasleak</td><td>Ikastearen nahasmenduarengatik: dislexia, disortografia, disgrafia, diskalkulia</td></tr>
<tr><td>AFN-Harengatik hezkuntza premiak dituzten ikasleak</td><td>Arreta falta, hiperaktibitatea eta inpultsibitatea</td></tr>
<tr><td rowspan="4">Premia bereziak dituzten ikasleak</td><td>Gorputz urritasuna</td></tr>
<tr><td>Urritasun psikikoa</td></tr>
<tr><td>Zentzumen urritasuna: entzumena/ikusmena</td></tr>
<tr><td>Portaeraren arazo larriak</td></tr>
<tr><td colspan="2">Hezkuntza sisteman berandu sartzen diren edo/eta egora soziokultural ahulean dauden ikasleak</td></tr>
<tr><td colspan="2">Gaitasun handiko ikasleak</td></tr>
<tr><td colspan="2">Ospitalean laguntza emateko programa</td><td>Ospitaleraturik dauden ikasleei behin behinekoz sortzen zaizkien desberdintasunak</td></tr>
<tr><td colspan="2">Etxez etxeko laguntza emateko programa</td><td>Eriondoan dauden ikasleei behin behinekoz sortzen zaizkien desberdintasunak.</td></tr>
</table>




5. **irudia.** Mapa. Berdintasun eta ezberdintasunaren kontzeptuak.

## 2.2. Esku hartze motak

Berariazko hezkuntza premiak dituzten ikasleekin esku hartzea ezinbestekoa da beren ikaskuntza prozesua bermatzeko.

Hezkuntza sisteman dagoen aniztasunari erantzuteko, hainbat printzipio daude: hezkuntza laguntzaren premia berariazkoak ahalik eta lasterren atzeman behar dira ikasteko arazoei aurre egiteko eta hezkuntza neurri egokiak hartzeko. Hezkuntza neurriak arruntak nahiz bereziak izango dira.

Hezkuntza neurri arruntak curriculumeko nahitaezko elementuak aldarazten ez dituztenak dira (tutoretza ekintza, aukera gaiak, maila edo ziklo berean beste ikasturte bat ematea..). Neurri bereziak ordea, curriculumeko sarrera elementuak edo/eta nahitaezko elementuak aldarazten dituzten curriculum egokitzapenak dira. (Iza, 2013)

Neurri berezien hartzaileak honakoak dira:

- Urritasunaren edo portaera arazo larrien ondorioz hezkuntza premiak dituztenak.
- Ikasteko aparteko zailtasunak dituzten ikasleak.
- Adimen gaitasun handiko ikasleak.
- Hezkuntza sisteman berandu sartzen direnak.
- Egoera pertsonal edo sozial ahulean dauden ikasleak.

Bestalde, curriculumeko sarrerako elementuak, curriculum arrunta nahiz curriculum bereziren bat garatzea erraztuko duten baliabideak, materialak edo komunikaziorako bitartekoei dagokie.

Curriculum egokitzapenetan bi maila ezberdintzen dira;

- Curriculum egokitzapen ez esanguratsuak. Curriculumaren osagai bat edo gehiagori eragiten die, baina erreferentzi gunea ikaslea eskolatuta dagoen zikloa da.
- Curriculum egokitzapen esanguratsuak edo garrantzitsuak. Erreferentzi gunea ikaslea eskolatuta dagoen zikloa edo etaparen bestelakoa da.

Gainera, Curriculum Egokitzapen Indibiduala (CEI), curriculum sarrera elementuetan edo/eta oinarrizko elementuetan ikasle jakin baten hezkuntza premiei erantzuteko asmoz aldaketak egiteari deritzo. Ikusi hemen behean dagoen eredua eta dokumentu osoa gehigarrietan.

| | CURRICULUM EGOKITZAPEN GARRANTZITSUA |
|---|---|

**NORBANAKO CURRICULUM EGOKITZAPENA**

| IKASLEAREN DATUAK | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Ikaslea.** | | Maila/gela. | | Ikasturtea | |
| Jaiotze data | | Errepikatutako maila | | Erroldatua | |
| Ama hizkuntza | | Tutorea. | | | |

| CURRICULUM KONPETENTZI MAILA | | | |
|---|---|---|---|
| IKASGAIAK | Gainditu gabeak | CURRICULUM MAILA[1] | OHARRA |
| EUSKARA | | | |
| LENGUA | | | |
| INGLES | | | |
| MATE | | | |
| INGURUNE | | | |
| ARTE HEZKUNTZA | | | |
| | | | |

| LAGUNTZA ANTOLAKETA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Arloak | Saioak | Laguntza modalitatea 2 | Nork | Ordu horietan gelan zer landuko da? |
| | | | | |
| ESKOLAZ KANPOKO LAGUNTZA. | | | | |
| | | | | |

**6. irudia.** Curriculum Egokitzapen ereduaren lehen orrialdea.

Garrantzitsua da esku hartzea goiztiarra izatea, onartuta baitago geroz eta goizago esku hartu geroz eta eraginkorragoa izango dela. Azken hamarkadan arreta goiztiarrak gero eta garrantzi handiagoa hartu du. Izan ere, esku hartze goiztiarraren helburua da haurrak bere garapena eta ongizate gaitasuna indartu dezakeen guztia jasotzea; familian, eskolan eta gizartean integratzeko eta norbanakoaren autonomia garatzeko.

Bestalde, edozein ikaslerekin ezinbestekoa da ikaskuntza esanguratsua[6] izatea; zer esanik ez, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzat. Honi esker haurrak jasotako informazioa aurretik dituen ideiekin lotuz ikasten du. Hezkuntza estilo honek ikasleari ikasitakoa ez ahaztea eta erabiltzeko gai izatea bermatuko dio. Ikaskuntza esanguratsua izan dadin, ezinbestekoa da irakasleak ikasleak dituen aurre ezagutzak eta zein ezintasun dituen jakitea. (http://eu.wikipedia.org/).

6 Ikaskuntza esanguratsua David Ausubel pedagogo eta psikologoak eratutako ikaskuntza-teoria da eta konstruktibismoan eragin nabarmena izan duena.

Ikaskuntzaren teoriak aintzat hartu behar ditugu hezkuntza premia bereziak dituzten haurrekin esku hartzeko. Ikaskuntzaren teoriak honakoak ditu ardatz: pertsonaren portaera eta portaera horren inguruneak duen eragina. Teoria honen barne hiru teoria sartzen dira:

- Baldintzapen klasikoaren teoria: Paulov-ek txakurrekin eginiko ikerketari esker ondorioztatu zuen ikaskuntza sari eta zigorren bidez estimuluak erantzunarekin lotuz gertatzen dela. Ikerketa hau abiapuntutzat hartuta, teoria honetan ingurunearen eragina azpimarratzen da. Gizakia hutsik jaiotzen da eta ingurunearen eraginez ikasi beharreko guztia ikasten du.
- Baldintza operantea eta instrumentala: Skinner-en arabera hainbat giza portaera estimulu jakinik gabe gertatzen dira, organismoak sortuko ditu arrazoi ezberdinengatik. Teoria honen arabera indartutako portaerak errepikatuko dira eta indartzen ez direnak berriz agertzeko aukera gutxi egongo dira.
- Ikaskuntza sozialaren teoriak: Bandura teoria honetan gizakiaren ikaskuntzan zentratu zen. Ikaskuntza sozialaren mekanismoen barruan jokabideen imitazioa eta horretan inplikatutako tresna kognitiboak kokatu zituen.

Bestalde, Lev S. Vigotskiren ekarpena dugu. Haren ustez, umeak testuinguru soziokulturalaren eta historikoaren eragina du eta testuingurua eraldatu dezake. Haurraren gaitasun psikologikoaren garapena emateko besteekin harremanetan egotea ezinbestekoa dela dio. Hortaz, garapena ekintza interakzionistaren ondorioa da.

Ez dugu ahaztu behar, esku hartzea eraginkorra izan dadin, HPBko irakasleen, ikasle beraren, gurasoen eta ikastetxeko orientatzailearen koordinazioa eta elkarlana ezinbestekoak direla. Hori aurrera eramateko tresna egokia eta ezinbestekoa bilera fitxa daukagu. Fitxa eredua lehenengo eranskinean ikus daiteke.

| BILERAREN DATUAK | | |
|---|---|---|
| Ikaslearen izen-abizenak: | | |
| Data: | Tokia: | Bileraren iraupena: |
| Partehartzaileak: | ama __________________ <br> irakaslea __________________ | aita __________________ <br> espezialista __________________ |

| BILERAREN ZERGATIA |
|---|
| |

| JORRATUTAKO GAIAK |
|---|
| |

| ADOSTUTAKOAK |
|---|
| -IRAKASLEA-k egin beharrekoak: |
| -GURASO-ek egin beharrekoak: |
| -IKASLEA-k egin beharrekoak: |

| HURRENGO BILERA |
|---|
| Data: |
| Zergatia: |
| Jorratuko diren puntuak: |

**7. irudia**. Bilera batean erabili beharreko fitxa.

Azkenik, esku hartzeko unean kontuan hartu behar ditugu ikastetxean ditugun langile motak (PTa, orientatzailea, psikologoa, pedagogoa…) eta materialak.

(Iza, 2013; Trebol, 2013; http://www.izenpe.com/).




**8. irudia.** Mapa. Esku hartze motak.

## 2.3. Teknika psikologikoen erabilera emaitzak hobetzeko

Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen hezkuntza prozesua bermatzeko ezinbestekoa da aurretik aipaturiko esku hartzeko teoriak kontuan hartzea eta ikasgelan hainbat teknika psikologiko aplikatzea.

Teknika psikologikoei esker ikasleek motibazio, interes, arreta eta ikasketa prozesuan aurrerapen nabariagoak izango dituzte.

Erabiliko ditugun teknikak eraginkorrak izan behar dira, ikasleak hezkuntzako etapan ezarritako oinarrizko gaitasunak lortu ditzan. Teknikak beti ikaslearen hezkuntza premiei loturik egon behar dira, esaterako ikasleak jarrera arazoak baditu, jarrera horiek egokitzeko teknikak erabili beharko ditugu. Kontuan hartu behar da baita ere berariazko hezkuntza premiak dituzten ikasleekin erabiltzeko teknika batzuk espezifikoki urritasun bati edo besteari loturik daudela.

Azkenik, arestian aipaturiko teoriak kontuan hartuz, teoria psikoanalitikoa, konduktuala humanista, kognitiboa eta sistemakoa, esan behar da bata bestearekin

alderatuz ez dela hobeagoa edo okerragoa. Teoria bakoitzak hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleekin esku hartzeko garaian bere alde onak eta txarrak ditu.

Ikasgelan dauden haurrekin teoria horiek kontuan hartuz esku hartzen badugu, teoria bakoitzak bere eragina izango duela konturatuko gara.

Teoria psikoanalitikoari esker ikasleari bere pentsamendu, sentimendu eta nahiei buruz hitz egiteko aukera ematen diogu. Horri esker ikaslea gehiago ezagutuko dugu eta gure esku hartzea bere interesen arabera antolatu beharko dugu. Gainera, ikasle hauek askotan ez dute sentitzen dutena adierazteko ahalmena, hortaz, teoria psikoanalitikoan oinarrituz, bere sentimenduak azaltzen erakutsiko diogu eta hobe sentitu ahalko da. Teoria honek duen alde txarra, aholkuak eman ezin direla da. Oso garrantzitsua da irakasleak ikasleei aholku onak ematea, beraiek baitira ikasleen eredu.

Bestalde, ikaslearen portaera desegokia bada, eta guk teoria konduktistak planteatzen dituen teknikak erabiltzen baditugu, portaera horiek hobetu egingo dira. Teoria honek dioenez, portaera guztiak ikasiak dira, horregatik jokabide txarrak baztertzeko aukera badago. Gainera, teoria honen ikuspegitik oso garrantzitsua da irakaslearen eta ikaslearen inguruko pertsonen jokaera nolakoa den, ikasleak beregandik jokabide ezberdinak ikasiko dituelako. Horregatik, irakaslearen eta ikaslearen ingurukoen portaera eredugarria izan behar da.

Teoria humanistari esker, hezkuntza gizabanakoan zentratzen da, eta bakoitza bestearekin alderatuz ezberdintzat hartzen du. Horregatik, ikasleari bere ekintzetan eta jokabidean errespontsabilitatea izaten erakutsi behar zaio. Terapia Gestaltikak dioen bezala, ikasleari pertsona horrekin hitz egitea irakatsi behar zaio, ez pertsona horretaz. Gainera, portaera egokiak izaten erakutsi behar zaio, barkamena eskatu ez dezan. Bestalde, guk planteatzen dizkiogun ariketak bere hurbileko egoerekin loturik badaude, ikasleak gogo gehiagorekin eta hobe ulertuko ditu.

Modelo kognitiboaren arabera, ikasleari bere portaera pentsamenduaren bidez kontrolatzen irakatsi behar zaio. Teoria honek dioenez, ikaskuntza memorian erregistratutako kontzeptuen loturari esker ematen da. Hortaz, irakaslearen papera

ikasleari kontzeptuen loturak egiten laguntzea izango da. Modelo honen alde txarra irakaslearen papera zuzendariarena dela, eta horrekin ikasleak irakasleak esaten duena betetzen bakarrik ikasiko du.

Azkenik, teoria sistemakoak eskaintzen duena pertsona baten inguruko partaide guztiak inplikatzea da. Honi esker ikaslearen ikaskuntza prozesua errazagoa izango da, denen parte hartzeari esker ikasleak eskolan eta etxean metodo edo teknika berdinak izatea ahalbidetuko duelako.




**9. irudia**. Mapa. Teknika psikologikoen erabilera emaitzak hobetzeko.

# 3. LANAREN GARAPENA: HASIERAKO KONTZEPTU ETA HISTORIA, AURRE IKUSPENAK. EGILEAREN ARRAZOIZKO PLANTEAMENDUA

Atal honetan arrazoizko planteamendua ageri da. Ikasle baten hezkuntza premia berezietan esku hartzeko unean ikastetxea, ikasgela eta ikasgelaz kanpoko esku hartzeak kontuan hartu behar dugu. Garrantzitsua da parte hartzen duten ikasle, familia eta irakasleak, baita kanpo erakundeak etengabeko koordinazioan aritzea.

Hortaz, arestian aipaturiko lanaren helburuak kontuan hartuta, hurrengo lerroetan honako hiru gaien azalpena ageri da;  HPBak dituzten ikasleekin nola esku hartu, teknika psikologikoak ezagutzea klasean nola aplikatu behar diren jakiteko eta esku hartzerako protokolo baten diseinua egin eta honen erabilera azaldu.

## 3.1. Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleekin nola esku hartu

Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleekin ikasgela barnean edo/eta gelatik kanpo esku hartzen da. Zuzeneko esku hartzean tutoreak eta pedagogia terapeutikoko profesionalak egiten dute lan.

Esku hartzeko garaian kontuan hartu behar dira HPBak dituzten ikasleen sailkapena, ez baita berdina portaera arazoak dituzten ikasleekin eraman beharreko esku hartzea edo irakurketa idazketa prozesuan arazoak dituztenekin.

Hortaz, irakasleek esku hartzeko ikaslearen hezkuntza premiak ezagutu behar ditu (HPBak dituzten ikasleen azalpena eranskinetan ageri da).

Argi utzi behar da esku hartzea ez dela bakarrik pedagogia terapeutikoaren esku dagoen zerbait, baizik eta bertan ere ikasleen irakasle guztiek eta familiak ere parte hartu behar dute. Ikasgelan irakasle-tutorearen esku dago ikasleak dituen ezintasunei erantzutea, eta horretarako hurrengo atalean azaltzen diren teknika ezberdinak erabiltzea. Tutoreak ere pedagogia terapeutikoko irakaslearekin koordinatu beharko da ikasgelan zer eta nola egiten duten azaltzeko.

Bestalde, pedagogia terapeutikoko profesionalak ikasleak gelan egiten duenaren arabera bere lana antolatuko du. Gelatik kanpo nahiz gelan barne ikaslearen hezkuntza errazteko teknika psikologikoak ere erabiliko ditu.

Paulov-en teoriari lotuz, kontutan izan behar dugu esku hartzean inguruneak duen eragina. Hau da, ikaslearen irakasleen, familiaren eta orientatzailearen arteko koordinazioa egokia bada, ikaslearen hezkuntza erraztuko dugu. Bestalde, Paulov-en estimuluen teoriarekin jarraituz, ikasleari bere lorpenak eta jokabide egokiak saritzen badizkiogu, ikaslea motibatzea lortuko dugu. Hau Skinner-en teoriarekin lotzen badugu, esku hartzen dugunean ikasleak dituen portaera egokiak saritzeari esker, jokabide hori errepikatzea eragingo dugu.

Banduraren teorian oinarrituz, irakaslea ikaslearen ereduetako bat dela kontutan hartuz, ikasleak, inkontzienteki bada ere, hainbat jokabide imitatuko dituela badakigu. Horregatik, edozein irakasleek eredu eta jokabide onak erakutsi beharko ditu, imitazioa egokia izan dadin.

Lev S. Vigotskiren ekarpenak irakaslearen esku hartzera ekartzen badugu, kontutan hartu behar dugu haurraren gaitasun psikologikoaren garapena emateko besteekin harremanetan egotea ezinbestekoa dela. Horregatik HPBko ikasleekin ematen den esku hartzeak besteekiko harremana sustatzea garrantzitsua da.

Bestalde, Lawrence Kohlberg-en garapen moralaren teoria kontuan hartuz, garrantzitsua da ikasleei asertiboak izaten irakastea. Gure gizartean ikasleek hainbat gatazkei aurre egin beharko diete, eta egoera horien aurrean lasai eta segurtasunez jokatzen jakin beharko dute. Asertiboak izanez, arazoa konpontzeko jarrera izango dute, jarrera agresiboak baztertuz eta honakoa izanez; hitz eginez, elkar ulertzen eta guztientzako bidezkoak diren irtenbideak bilatuz. (http://sorkari.com/).

Azkenik, aipatu beharra dago teknika psikologikoak erabiltzearekin bakarrik ez dela nahikoa ikasleen ikaskuntza prozesuari ekiteko. Esku hartzeko beste hainbat baliabide kontutan hartu behar dira: materialak egokitu behar dira, teknologia berriak erabili, edukiak azaltzeko moduak aldatu, etab.

(Trebol, 2009; Esarte, 2009).




**10. irudia.** Mapa. Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleekin nola esku hartu.

## 3.2. Teknika psikologikoak eta bere aplikapena

Lan honetan zehar hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak zeintzuk diren zehaztu da. Oraingo honetan, beraien hezkuntza prozesua bermatzeko zein teknika psikologiko erabili behar diren azalduko da.

Arestian aipatu bezala, hezkuntza premia bereziak bi taldetan bana daitezke; portaera arazoak dituzten ikasleak eta irakurketa idazketa prozesuan zailtasunak dituztenak.

Hortaz, teknika psikologikoen aplikapena taldekatze horretan oinarritua dago.

### *3.2.1. Portaera arazoak dituzten ikasleekin erabili beharreko teknika psikologikoak*

Portaera arazoak dituzten ikasleekin ezinbestekoa da arauak eta mugak ezartzea, beraiei segurtasuna ematen baitie eta honekin beraietaz zer espero den konturatzen direlako. Arauak zehatzak, argiak eta haurraren adinari egokituak izan behar dira.

Horiek hormetan edo erraz ikusten den leku batean jartzea gomendagarria da, ikaslearen begi bistan egon dadin. Tolerantzia gradua egokitu behar da haurraren gaitasunera. Ez dira egokiak oso planteamendu exigenteak ezta permisiboegiak ere.

Bestalde, irakasle-ikaslearen arteko harremana estua izan behar da, geroz eta harreman hobeagoa izan, ikaslea erosoago egongo da ikasgelan. Saioan zehar irakasleak azalpenak ematen dituenean, ikaslearekin begi kontaktua mantendu behar du, honek atentzioa mantendu dezan. Ez da komenigarria aldi oro begiratzen egotea, baina bai ikasleak sentitu behar du irakaslea bere erne dagoela. Bestalde, irakasleak poliki, lasai eta garbi hitz egin beharko du ikasleek azalpenak ongi uler ditzaten.

Ardura batzuk ikaslearen esku utziko dira, lehenagotik ikaslearekin bakarka adostutakoak izango direnak. Ardura horiek honakoak izan daitezke: klasean paperak banatu, urduri dagoenean irakasleak gutun bat eman eta idazkaritzara eraman bera lasaitu dadin… Garrantzitsua da baita ere irakasleak zenbait egoeratan ez ikusiarena egitea, bestela errieta egiten pasako du denbora osoan. Gelan haurra irakaslearen ondoan jartzea lagungarria da, eta posible den kasuetan langileak diren haurrez inguratua, arreta hobe mantendu dezan eta bere jokabide arazoak kontrolatu ditzan.

Eskolako lanei dagokionez, ariketa fisikoa eskatzen duten jarduerak bultzatuko ditugu, ikasleari gehiegizko energia kanporatzen laguntzeko. Bestalde, ariketa laburrak, egituratuak eta motibagarriak izan behar dira. Jarduerak egiteko denbora jakin bat mugatu behar zaio, baina besteei baino denbora luzexeagoa emanez. Gaitasun bisuala entzumenezko gaitasuna baino hobeagoa da beti, horregatik idatzizko materiala ematea komenigarria da. Eguneroko bizitzan erabilgarriak izango zaizkion ikaskuntzak planteatzea garrantzitsua da.

Gainera, arbelean saioan zehar egingo dena idatzi eta egin ahala ezabatzen joango gara. Hartaz, ikasleak arreta galtzen badu, gero arbelari begiratu eta non doazen jakin ahalko du.

Bestalde, ikasleak ongi egiten dituen gauzak asko goraipatu behar dira, errepikatu ditzan, eta gaizki egindakoak seinalatu, modu asertiboan. “Reto” moduko jarduerak

erabiltzea egokiak dira, ikasleari asko motibatuko baitio proposatutako lanak modu ludikoan egitea, reto bat suposatzen dutelarik.

Normalean, irakasleak hainbat kontzeptu nahasten ditu, eta hori saihestu behar dugu. Inpulsibidadea atentzioa deitzeko nahiarekin nahastu ohi da, arreta falta motibazio baxuarekin eta hiperaktibitatea urduritasunarekin.

Oso ohikoa da umeak esperientzia negatiboak izatea bere errendimendu maila negatiboan eta autokontzeptuan. Beraz helburu garrantzitsuena autoestimua hobetzea izango da.

Azkenik, jokabidea mantentzeko eta murrizteko hainbat teknika ditugu.

*3.2.1.1. Jokabidea mantentzeko eta garatzeko teknika operanteak*

- Modelamendua

Teknika honen kontzeptu garrantzitsuena imitazioa da. Helburua jokabide berri baten garapena sustatzea da, errefortzu positiboa erabiliz. Moldeaketa ezartzeko, lehenik lortu nahi den jokabidea zehaztu behar da, gero aurrera eramango diren pausoak deskribatu beharko dira (hori lortzeko denbora zehaztuz) eta azkenik eman beharreko pausoak erreportxatzeko kitzikatzaileak edo zirikatzaileak ezarri beharko dira.

Teknika honen adibide bat: 4 urteko mutiko batek pixa gainean egiten zuen duela 2 hilabete arte. Geroztik, jokabidea aldatu du eta irakasleari adierazten dio komunera joateko beharra duenean. Gure helburua jokabide hau mantentzea izango da. Horretarako, gure (irakaslearen) jarrera ikasgelan, egokituko dugu. Komunera joateko beharra dugun aldiro (irakasleak), ahoz adieraziko diegu ikasleei “komunera noa”. Honekin, lortuko duguna da ikasle guztiek, baita honek ere, imitazioaren bidez (moldeamendua) jarrera hori bereganatzea eta eredugarritzat jotzea.

- Kitzikatzaile edo zirikatzaile

Kitzikatzaile edo zirikatzaileak erantzun baten agerpenean laguntzen duten gauzei deritzo, normalean erantzun baten aurretik azaltzen ditugularik.

Kitzikatzaile motak:

**9. taula.** Kitzikatzaile motak.

| mota | definizioa | adibidea |
|---|---|---|
| hitzezkoa | Jokabide bat aurrera eramateko hitzeko instrukzioak ematea. Hitzez erreportxatzea egiten ari garena. | Hau arkatza da, zer da hau? |
| keinuzkoa | Subjektua ukitu gabe lagungarria diren keinuak erabili. | Eskuekin keinuak, begiradarekin… |
| inguruneko | Ingurunea modifikatu jokabidearen agerpena sustatzeko | Jostailu konkretu bat erabili kitzikatzaile bezala. |
| fisikoa | Laguntza fisikoa | Umea lagundu koilara ahora eramaten |

- Desegitea

Kitzikatzailea edo zirikatzailea erabili ondoren, horiek desagertzen joan behar gara, baina modu progresibo batez. Kitzikatzaileen erabileraren bitartez jokabide bat ezarri denean, jokabide hori mantentzea da helburua, proportzionatu diren laguntzak progresiboki eliminatuz. Bi modutan eraman daiteke aurrera: kitzikatzailearen intentsitatea gutxituz eta kitzikatzaile batetik besterako denbora tartea luzatuz.

*3.2.1.2. Jokabidea murrizteko teknikak*

- Errefortzu diferentziala

Teknika honek ikuspegi positiboa du eta bi abantaila ditu: errefortzuaren aplikazioaren menpe dagoela eta prozedura konstruktiboen erabileraren bitartez, jokabide desegokiak eliminatzeko erabiltzen da.

- Zigorra

Bi motatako zigor daude; erantzunaren balioa eta denboraz kanpo.

- Erantzunaren balioa.

Subjektuaren eskura zegoen eta positiboa zen erreforzadore baten galtzea ematen da, jokabide desadaptatibo bat eliminatzeko helburuarekin. Honako teknika fitxen ekonomia teknikaren parte bat da.

Teknika hau instruktiboak ez diren prozedimentuak aplikatu ondoren porrota lortu denean erabiliko da. Horretarako, subjektua errefortzu kantitate minimo batekin hasi behar da. Bestalde, kenduko dugun errefortzuaren magnitudeak erantzunaren balioa determinatuko du. Balioa eta eskatzen dena orekatua egon behar du. Horretarako, subjektuak arauak asko kontrolatu behar ditu, ze jokabideek suposatzen duten galera eta zeintzuk irabaziak kontrolatu ere. Azkenik, irabazi eta galdutako puntuak ongi erregistratu behar dira.

Teknika honen adibide bat honakoa izan liteke: haurrarengan aldatu beharreko jokabidea kasketa da. Kasketa zer den definitu beharko dugu haurrarekin. Kasketa bakoitzarengatik izango duen ondorioa, txartel bat kentzea izango da. Ikasleak x txarteletara iritsiz gero, saioaren amaierako 10 minutuak ordenagailuan ibiltzeko aukera izango du.

- Denbora kanpoan.

Teknika hau errefortzu positibo bat epe konkretu batean lortzeko aukeraren galketari dagokio. Hemen haurrari egoera normal batetik isolatzen zaio. Umeari beraz zer espero den azalduko diogu, zeintzuk diren arauak eta noiz aplikatuko den denboraz kanpoa.

Denboraz kanpo estimulantea ez den ingurune batean aplikatuko da, modu lasaian eta oihukatu gabe. Umea modu egokian portatzen bada denboraz kanpo bitartean, posiblea da denbora murriztea eta gaizki portatzen bada denbora berriz ere hasieratik hasiko da.

Denboraz kanpo aplikatzeko hiru modu daude:

- Aislamendua: ikaslea beste leku batera trasladatu, adibidez ikasgelatik kanpo.

- Bazterketa: errefortzurako bidea ekiditen da, leku berean dago baino besteekin ez zaio uzten kontaktua mantentzen.
- Ez baztertua: umea leku berean dago eta kontaktua partziala da.

▪ Fitxen ekonomia

Fitxetan oinarritutako erreportxamendu sistema da. Hauek programa indibidualak dira, baina taldean ere erabili daiteke. Bertan bi fase ezartzen dira:

- Ezartze fasea.

Fase honetan errefortxatu behar diren jokabideak identifikatu behar dira. Fitxa, punto, gomets, izar… mota aukeratu behar dira, beti subjektuari egokituak. Bestalde, fitxa batek honako ezaugarriak izan behar ditu: dispentsatzeko erraza izan behar da, eramateko erraza, bere balio azkar ulertu behar da eta irakasle, gurasoentzat ez du lan estra handiegia suposatu behar.

Gero, fitxengatik kanjeatuko diren erreforzadoreak definitu behar dira eta erregistro orri bat sortu behar da irabazitako, kanjeatutako, galdutako eta aurrezkutako fitxak apuntatzeko.

Azkenik, ikaslearekin fitxen ekonomia teknika martxan jarriko dugu.

- Desagertze fasea.

Bigarren fase honetan fitxak gradualki kendu behar dira. Horregatik, fitxak entregatzeko denbora tartea luzatu behar da (jokabidea hobetuz joan ahala). Fitxak lortzeko irizpideak aldatu, zailagoak bihurtuz eta errefortzua lortzeko fitxen kopurua handituz joan behar da.

▪ Jokabide kontratua

Jokabide kontratua, jokabide bat aldatzea nahi duten pertsonen artean ezartzen den kontratua da (irakasle, guraso… eta seme-alaba, ikasle). Hau, idatzizko dokumentua da non egin beharreko akzioak azaltzen dira eta honi dagozkion ondorioak ere bai

(positiboak zein negatiboak). Gainera, kontratuan “extra” bezala kodifikatu daitezkeen bonoak agertu behar dira.

### *3.2.2. Irakurketa idazketa prozesuan zailtasunak dituzten ikasleak*

Irakurketa idazketa prozesuan zailtasunak dituzten ikasleen hezkuntza prozesua bermatzeko, metodologia egokitu behar da. Oso garrantzitsua da ikaslea irakaslearen hurbil egotea. Metodo inklusiboak sustatu beharko ditugu, talde elkarreragileak, talde malguak, elkarlanean ikasteko teknikak… erabiliz. Ikasleari laguntzeko beste modu bat argibideak sekuentziatan azaltzea, ikasleei irakasleak irakurtzea eta ahozko eta ikusizko informazioa ematea aldi berean izango da.

Irakasleek komunikatzeko ohitura egokiak izan behar dituzte; begietara begiratu, lasaitasunez entzun, txandak errespetatu, erantzunak emateko denbora eskaini. Ikasleak zerbait desegokia esaten duenean, eredu egokia eman behar zaio, zuzendu gabe eta behin eta berriz hitza errepikatzeko eskatu gabe. Ez da inolaz ere haur hizkuntza imitatu behar, ezta haren akatsak errepikatu ere. Honela, haurrak “guau-guau” esaten badu, guk “txakurra” esango diogu.

Bestalde, ikasleari behar den denboraz abisatu beharko zaio noiz irakurriko duen ozenki gelan, berak lehenagotik prestatu dezan. Testu horiek ez dira luzeak izan behar. Bestalde, idatzi edo irakurri behar dituzten gaiak ikasleentzako interesgarriak izan behar dira, ikaslea motibatzeko.

Lanen edo azterketen zuzenketari dagokionez, ikasle hauei akatsak zuzenean berarekin zuzentzea egokia da, baina ez bakarrik akatsak zuzentzeko, ongi egin dituzten esaldi edo hitzak esateko ere. Hartaz, lana ez da sistematikoki zuzendu behar, lantzen ari diren akatsak baizik.

Ikaslearen jarduera ez dugu mugatu behar ariketa sinpleak egitera, baizik eta lan zama neurtu behar dugu. Edozein jarduera egiteko gai dira, nahiz eta zuzen ez idatzi edo irakurri.

Ikasleari bere arazoa ezagutzen dugula erakutsi behar zaio, gure laguntza duela adieraziz. Bere lanaren indargunean azpimarratu behar ditugu, desmotibatu ez dadin.

Azkenik, ebaluazioa ikasleen ezaugarrietara egokitu behar da. Proba mota ezberdinak izan ahal ditu: ahozko azterketak, test motatakoak, idatzizko azterketen formatua zaintzea (tamaina, letra-mota, tarteak), galderak zailtasunaren arabera (errazenetik zailnera) ordenatzea eta azterketak egiteko denbora malgua izatea.
(Esarte, 2013; Iza, 2013; Trebol, 2009; Trebol, 2010; Trebol, 2013).




**11. irudia.** Teknika psikologikoak eta bere aplikapena.

## 3.3. Esku hartzerako protokolo baten diseinua egin eta honen erabilera

Jarraian bi protokolo ezberdin ageri dira; aniztasunaren protokoloa eta Pedagogia Terapeutokoko profesionalaren protokoloa.

### *3.3.1. Aniztasunaren protokoloa*

Protokolo hau ikaslearen hezkuntza premia bereziak identifikatu aurretik, pedagogia terapeutikoko profesionalak esku hartu baino lehenagora dagokio. Aniztasunaren protokoloa izena eman zaio, ikasgelako aniztasunetik abiatuta HPBak dituzten ikasleen detekzioa ematen baita. Jarraian ageri da protokoloa:

- Irakasle-tutoreak kurtsoan zehar ikasleen behaketa egingo du. Behaketa hori egiteko, behaketa taulak egingo ditu, non, ikasleen arteko harremanak, planteatzen diren eduki edo jardueren maneiatzea azalduko diren.
- Sintomak hautematen badira, tutorea orientazio departamentuarekin bilduko da.
- Orientazio departamentuarekin esku hartzea adostu.

    · Ikaslearen maila curricularra aurre ebaluatu, maila curricularra neurtzeko taulak (ikus eranskinetan taulak) pasaz.

    · Beste irakasleekin hitz egin, beren ikuspuntua jakiteko edo/eta esku hartzea zein izango den jakinarazteko.

    · Gurasoei jakinarazi ikaslearengan hauteman diren sintomez eta egingo den esku hartzeaz.

    · Hartu beharreko neurriak adostuko dira.

        · CEI egin bai edo ez.

        · Pedagogia Terapeutikoko irakaslea behar duen bai edo ez.
        Behar izanez gero, saioak non eta noiz adostuko da.

**HPB IKASLEEN ESKUHARTZERAKO PROTOKOLOA**

| Noiz / Arduraduna | Zer | Adierazleak |
|---|---|---|
| **Kurtso hasierako Plangintza** / Orientazio Departamentua. | Tutorea eta Orientazio Departamentuak plangintza prestatzen du. Aurreko ikasturteko informaizoa jaso eta azteruz.<br><br>Kontsultatu teoria, Aniztasunaren Trataera antolatzeko. | Departamentuko bileraren akta erabakiak agertzen dira.<br><br>Teoriaren bilduma. |
| **Kurtso hasieran eta lana egiten hasi baino lehen** / Tutoreak. | Frogetarako familiaren baimena lortu (pertsonalki esten diegu edo telefonoz, posta-e.) | Bidalitako mezuak. |
| **Irailaren lehenengo 15 aldian** / Tutorea eta Laguntzen arduraduna. | Ikaslearen maila kurrikularra aurreebaluatu. Horretatako hau egin daiteke:<br>1. Maila Kurrikularra neurtzeko tualak pasa.<br>2. Aurreko kurtsoko ikaslearen notak (ebaluazio txostenak) aztertu (analizatu) eta gainditu ez dituen helburuak aukeratu…<br>3. Idatzirik egon daitezken txostenak jaso, irakurri eta aztertu. | Maila kurrikularra neurtzeko taulen bilduma. |
| **1go. Hilabetean Irailaren 2. 15koan** / Tutore aeta Laguntzen arduraduna. | Esku hartzearen proposamena…<br>- HH 2.-eko 4 urteko gelan erabiliko ditugu **fitxa egokituak** (Egokitzapen Kurrikularra)<br>- **Esku hartzea nola antola daiteken** adibide bat ikusteko, ikusi ELORRI ikastetxearen eskola-praktika **txostena**.<br>- | Orientazio Departamentuaren eskuhartzearen txostena.<br><br>Elorriko eskola-praktika **txostena**.<br><br>HH 2 **Fitxa** |

**12. irudia**. Aniztasunaren protokoloa.

(Trebol, 2009).

### *3.3.2. Pedagogia Terapeutikoko profesionalaren protokoloa*

Protokolo hau Pedagogia Terapeutikoko profesionalak ikaslearekin zuzenean esku hartzen duen uneari dagokio.

- Orientatzaile eta tutorearekin bildu ikaslearen ezaugarriak edo beharrak jakiteko.
- Tutorearekin koordinatu ikasgelan lantzen dituzten edukiak eta helburuak zehazteko. Hori honelako taula baten bidez egin daiteke:

**3. taula.** PT eta tutorearen koordinaziorako taula

| |
|---|
| Landuko den gaia: |
| Landuko diren edukiak: |
| Helburuak: |
| Erabiliko den metodologia: |
| Ikasgelan aurrera eramango diren jarduerak: |
| Ebaluazioa: |

- Tutorearekin, ikasleak gelan zer egin behar duen bakarrik eta zer P.T.arekin zehaztuko da.
- Ikaslearekin esku hartze zuzena hasten denean, ikasleari konfiantza eta testuinguru lasai bat eskainiko zaio. Lana antolatzeko garrantzitsua da bere interesak eta motibazioa ezagutzea, hartaz ikaslea ezagutu beharko dugu pertsonalki lan egiten hasi baino lehenago.
- Ikaslea ezagutu ondoren, materialen egokitzea nolakoa izango den adostuko da (liburua erabiliko du, fitxak, jokuen bidez egingo da lana…) nahasteari egokituz.
- Tutore edo arloko irakaslearekin batera materialen prestaketa egingo da.
- Pedagogia terapeutikoko profesionalak ikaslearen premiak ezaguturik, teknika psikologiko ezberdinen aukeraketa egingo du
- Pedagogia terapeutikoko profesionalak ikaslearen premiak ezaguturik, teknika psikologiko ezberdinak erabiliko ditu.
- P.T.a etengabeko koordinazioan egongo da irakaslearekin eta ikaslearen beharren arabera orientatzailearekin gehiago edo gutxiago bilduko da.

**4. taula**. Pedagogia Terapeutikoko profesionalaren protokoloa.

| **Pedagogia Terapeutikoko profesionalaren protokoloa** | | |
|---|---|---|
| ZER/ NOIZ / NOR | ZER EGINA | ADIERAZLEAK |
| Hasierako lana. HPBak detektatu direnean. Pta. | Orientatzaile eta tutorearekin bildu ikaslearen ezaugarriak edo beharrak jakiteko. | PTak orientatzaileak eta tutoreak emandako informazioa bilduko du. |
| P.T.a tutorearekin koordinatu. | Bileran ikasgelan lantzen dituzten edukiak eta helburuak zehaztu.<br><br>Tutorearekin, ikasleak gelan zer egin behar duen bakarrik eta zer P.T.arekin zehaztuko da. | Koordinazio taula (ikus 3.taula) erabili.<br><br>Erabakitakoa orri batean idatzi eta bien sinadura jarri, ados daudela adierazteko. |
| P.T. irakasleak | Ikaslearekin esku hartze zuzena hasten denean, ikasleari konfiantza eta testuinguru lasai bat eskainiko zaio. Lana antolatzeko garrantzitsua da bere interesak eta motibazioa ezagutzea, hartaz ikaslea ezagutu beharko dugu pertsonalki | Ezagutzerako unean irakasleak bere burua aurkeztuko du eta gero mesedez ikasleak berdina egin dezan eskatuko dio. Irakasleak bere interesak agertuko ditu, ikasleak ikus dezan konfiantza |

| | | |
|---|---|---|
| | lan egiten hasi baino lehenago. | egoera batean dagoela. |
| Tutorea, zikloko irakasleak eta P.T.a | Ikaslea ezagutu ondoren, materialen egokitzea nolakoa izango den adostuko da (liburua erabiliko du, fitxak, jokoen bidez egingo da lana…) nahasteari egokituz. Tutore edo arloko irakaslearekin batera materialen prestaketa egingo da. | Materialen egokitzapenean P.T.ak ikaslearen interes eta ezaugarrietan oinarritu behar direla zehaztuko du. |
| Teknika psikologikoen aukeraketa | Pedagogia terapeutikoko profesionalak ikaslearen premiak ezaguturik, teknika psikologiko ezberdinak erabiliko ditu. | Teknika psikologikoak lanaren 3.2 atalean ageri dira. |
| Etengabeko lana | P.T.a etengabeko koordinazioan egongo da ikaslearen irakasleekin orientatzailearekin. Bilerak ikaslearen beharren arabera gehiago edo gutxiago egingo dira. | Bilerak gutxienez hiruhileko bakoitzean bat egingo dira, eta ikaslearen gurasoekin ere (4. eranskinean dagoen bilera fitxa erabili). |

# 4. ESKOLAN DUEN ERAGIN SOZIALA, PSIKOLOGIKOA EDO PEDAGOGIKOA

Azkeneko atal honetan teknika psikologikoak bakarkako curriculum egokitzapena duten ikasleekin erabiltzeak sozialki, psikologikoki eta pedagogikoki duen eraginaz dihardut. Bertan bi atal azaltzen dira; ikuspegi teorikoa eta egiaztatze enpirikoa.

## 4.1. Ikuspegi teorikoa

Sozialki koordinazioa errazten du. Teknikak erabiltzeari eskeri gaizki ulertuak, profesional eta familien arteko gatazkak saihestu eta familiarekin informazio kanala markatzen ditu. Gainera, ikaslearen barneratzea, inklusioa, sustatzen du.

Inklusioa bultzatzeko, ikasle guztiei, ez bakarrik HPBak dituen haurrari, ikus arazi behar diegu guztiak beharrezkoak garela eta bakoitzaren desberdintasunei esker gehiago ikas dezakegula. Edozein uneetan hitz egin behar da balore horietaz, ez bakarrik gatazka edo arazoak daudenean.

Gainera ikasleek beren inguruari erreparatuz konturatzen dira irakasle guztiak ez direla berdinak eta desberdintasunei esker gauza ezberdinak ikasten dituztela, irakasle bakoitzak bere ekarpenak dituelako.

Bestalde, HPBko ikaslearekin hainbat teknika erabiltzen baditugu (portaera txarrak baztertu, motibazioa igo…), sozialki onartuagoa izateko aukera izango du. Honekin esan nahi dudana da, ikasle hauen auto-estimua baxua izaten da baztertuak sentitzen direlako eta horrek lagun edo ikaskideekin portaera negatiboak izatera eramaten dituzte. Irakasleak egoki esku hartuz eta aipaturiko teknikak erabiliz, ikaslea motibatu eta ikaskideekin arazoak ekidin ditzake.

Psikologikoki, arestian aipatu ditugun teknikak oso emankorrak izango dira ikaslearen zailtasunak zuzentzeko, baina baita ere berak dituen trebeziak sustatzeko. Honek ikaslea motibatzea egingo du eta bere garapenean eragin nabarmena izango du. Motibazioarekin batera auto-estimu hobeagoa izango du.

HPBak dituzten ikasleak askotan auto estimu baxua dute, beren burua ezberdin ikusten dutelako besteekin alderatuz. Irakasleek ikasle guztiei desberdintasunei buruz hitz egin behar die, kontura arazteko denak ezberdinak garela eta horrek guztioi onurak ekartzen dizkigula, gauza gehiago ikasteko aukera bat baita. Hartaz, HPBko ikasleek desberdintasunaren beste ikuspuntu bat izango zuten eta beren auto-estimua hobea izango zen.

Pedagogiaren ikuspegitik, irakaslearen lana materiala egokitzea izango da. Didaktika nola egin eta nola egokitzen dugun ikaslearengan eragina izango du, honek ikaslearen hezkuntza prozesuaren porrota saihestuko baitu.

Materialak moldatzea ere beste tekniketako bat da, non psikologikoki eta pedagogikoki eragina izango duen. Ikasleak didaktikoki aldatzen diren baliabideei (material, klasea emateko modua, azalpenak…) esker, kontzeptu edo/eta irakasleak ematen dituen informazioak hobe ulertuko ditu.

Ikus daitekeenez, teknika psikologikoak erabiliz (materialak aldatu, ikaslearen portaera aldatzeko teknika…), pedagogikoki, psikologikoki eta sozialki eragina izango du. Ikasleak didaktikako edukiak ikasiko ditu, motibatuagoa egongo da (psikologikoki eragina), eta sozialki ere aldaketak izango ditu, harreman sozialak indartu.




**13. irudia**. Mapa. Eskolan duen eragin soziala, psikologikoa eta pedagogikoa.

## 4.2. Egiaztatze enpirikoa

Atal honetan nik dudan esperientzia eta praktiketan ikusitakoa azalduko dut.

### *4.2.1. Nire esperientzia*

Nire esperientziari dagokionez, hiru urte daramazkit hiperaktibitatea eta arreta gabezia duen 12 urteko neska bati klaseak ematen. Lan honetan ikasle honi Naiara deituko diogu, konfidentzialtasuna mantenduz. Naiarak LH 1 maila errepikatu zuen, hortaz, orain LH 6. mailan dago. Honek, curriculum egokitzapen indibiduala dauka zenbait arloetan (matematiketan, hizkuntzetan eta ingurunean).

Nik eskolatik kanpo matematika saioak ematen dizkiot, oinarrizko edukiak (orduak, euroen erabilera, batuketak, kenketak…) landuz. Honetarako hiru hiletik behin Naiararen tutore eta orientatzailearekin biltzen naiz, eskaintzen dizkiodan saioak emankorragoak izan daitezen.

Saioen antolaketa honakoa da: Hasieran eguna zer moduz joan zaion hitz egiten dugu. Horren arabera, egunero etxerako lanetan buruketa bat jartzen dugu (momentuan lantzen ari garen ariketez gain) eta buruketak beti berekin zer ikusia duen egoera batekin loturik dago. Adibidez, gaur lagunekin arratsaldean gozokiak erostera joan bada, horrekin loturik buruketa jartzen dugu. Gero, klaseko arauak errepasatzen ditugu. Arau horiek bien artean jarri genituen kurtso hasieran, emankorragoak izan daitezen. Hona hemen irudia:




**14. Irudia:** ikasgelako arauak

Arauak gogoratu ondoren, ariketak egiten asten gara.

Naiarari fitxak eman eta eserita horiek egiten egotea ez zaizkio batere gustatzen, hartaz desmotibatu egiten da honelako ekintzekin. Hori dela eta, matematika saio hauetan dena jokoen bidez egiten dugu. Adibidez, batuketak eta kenketak ikasteko oka jokoa dugu. Erortzen den laukian dagoen eragiketa egin eta gero, ikasleari dadoan ateratako zenbakia duen ariketara joan behar da. Bertan fitxetako ariketa berdinak solte papertxo ezberdinetan ageri dira. Ikasleak ariketa ongi egiten badu, 2 puntu lortuko ditu, eta ez badu ongi egiten punturik gabe geratzen da. Honi esker ikasleari reto modukoa jartzen diot, hau da, niri irabazi behar didala.




**15. irudia**. Oka jokoaren materiala



**16. irudia**. Ikasgelako materialaren banaketa

Ariketak nik egin behar ditudanean, modelamendu teknika erabiltzen dut. Ariketa nik ozenean egiten dut eta horrela Naiarak ikusten du ariketa hori egiteko zein pausu

jarraitu behar diren. Egia esanda, teknika hau oso eraginkorra da, berak askotan niri imitatu eta ariketa egiteko pausuak ozen egiten baititu.

Bestalde, ikaskuntza esanguratsuaren eraginkortasuna azpimarratzekoa da, ikasleak eguneroko bizitzako egoerak (adibidez erosketak) era errealenean ikasgelan egiteko aukera ematen baitiot. Horretarako, ikasgelan denda modukoa dugu (ikus 6.irudia) eta bertan euroen maneiua ikasten du. Normalean ikasgela arruntetan ikasleei paperean buruketa bat jarri eta hori ebazten ikasi behar dute. Naiarak dituen zailtasunak kontuan hartuta, paperean egon ordez, era errealenean egiten dugu.




**17. irudia.** Denda ariketaren argazkia.

Honekin ikus daiteke zein garrantzitsua den ikaslearen ezaugarriak ezagutzea, honen ikaskuntza prozesua bermatzeko eta honekin batera desmotibazioa saihesteko.

Didaktikoki bere curriculum egokitzapenean zehazten den mailaren eduki berak lantzen ditugu, baina beste era batera. Metodologia aldatuz, Naiarak edukiak ulertu eta ariketak egiten badakizkiela erakusten du. Egia da, ikasgela arruntetan 20 ikaslerekin zaia dela horrelako planteamenduak egitea, baina saiatuz eta irudimena izanez gero, egin ahalko zen.

Psikologikoki Naiararengan honela lan egiteak izugarrizko eragina du. Ikasleak honela ikusten du ariketak ulertu eta egiten badakizkiela. Horregatik, motibatu eta poztu egiten da. Ikasle hauengan oso ohikoa da porrota sentsazioa izatea, baina honelako metodoak erabiliz, beren auto estimua igo eta beregan ere gehiago fidatzen dira.

Aipatu beharra dut, saioak ordu betekoak direla, baina Naiararen errendimendua 40 minutukoa da, naiz eta saio aktibo eta manipulatiboak egin. Kontuan izanik 40 minutukoak direla, geratzen diren beste 20 minutuak hitz egiten eta arreta mantentzeko jokoak egiten (el lince, memori, 7 erroreak bilatu…) pasatzen ditugu. Azkeneko minutu horiek benetan oso eraginkorrak dira, ikasleak bere sentimenduez, kezkez eta desioez hitz egiten baitu.

Honek sozialki eta psikologikoki oso eragin handia du, beretzako ni harreman sozial bat naizelako eta gainera eredutzat naukalako. Hartaz aholkuak eskatzen dizkidanean, ongi pentsatu eta aholku egokiena ematen saiatzen naiz. Honi esker ere, sozialki norekin harreman du behar den eta norekin ez ikasiko du. Ikaslearekin hitz egitea oso garrantzitsua da, psikologikoki eragin handia duelako.

Bestalde, Naiara kurtso hau oso motibatua hasi zen, baina hilabeteak pasa ahala, bere motibazioa jaisten joan da. Azaroan gustuko ariketa bat egin behar zuenean, kexatu egiten zen "joe… vaya mierda…" esanez. Hori zela eta, jokabide hau desagertzeko, fitxen ekonomia aurrera eramatea erabaki nuen.

Fitxen ekonomia aurrera eramateko arauak, egutegi bat eta fitxak jartzeko taula bat sortu nuen. Arauak honakoak dira:

Egunero klase amaieran egun horretan nola portatu den hitz egingo dugu eta horren arabera pozik dagoen aurpegia edo triste dagoen aurpegia jarriko du Naiarak egutegian.

Bestalde, puntuak erregistratzeko orrian zehaztutako arauen arabera puntuak jarri edo kenduko ditugu. Arauen orria 9. eranskinean ageri da.

Teknika honi esker, ikaslearen motibazioa oso altua da, beti puntuak lortu nahian dagoelako. Jarrera egokia izanik, didaktikoki eduki asko ikasten ditu. Gainera, aipatutako jarrera desegokia desagertzen, sozialki ere bere harremanetan arazo gutxiago izango ditu eta psikologikoki zoriontsuago egongo da.

### *4.2.2. Praktikumetan behatutakoa*

Praktikumei dagokionez, haur hezkuntzako maila guztietan egoteko eta pedagogia terapeutikoko mentzioa egin nuenean, gela alternatibo batean egoteko aukera izan nuen.

Ikasgela arruntei dagokionez, egia esan teknika baten erabilera ikusteko aukera izan nuen. Ikasle bat jokabide txarra edo desegokia izaten zuenean, irakasleak ikasgelako txoko batera bidaltzen zuen, hau da, denbora kanpoan teknika erabiltzen zuen. Aipaturiko teknika horretan arestian esan dudan bezala, hiru mota daude; aislamendua, bazterketa eta ez baztertua. Ni praktiketan egon naizenean aislamendu mota praktikan jartzen ez dut ikusi, ez baitute inoiz ikasle bat ikasgelatik kanpo atera, baina beste bi motak bai ikusi ditut.

Bestalde ez dut aukera izan, edo momentu horietan ez naiz ohartu beste teknikaren bat erabili zutenik. Agian ikasleak oso txikiak zirelako ez ziren erabiltzen, edo nik horien berri ez nuenez, ez nintzen horietaz ohartu.

Gela alternatiboari dagokionez, bertan hezkuntza premia bereziak dituzten hiru ikasle daude, eta ikasgelako tutorea pedagogia terapeutikoko profesionala da.

Gela horretan ikasleen heziketa behar berezietara egokitzeko hainbat metodologi erabiltzen dituzte, beti ere ikasleen ezaugarrietatik abiatuz eta egokitzapen curricularrean finkatutako helburuak lantzeko asmoz. Gela honetan ikaskuntza guztia manipulatiboa egiten dute, fitxarik erabili gabe. Orokorrean erabiltzen den metodologia autistentzako erabiltzen dena da, irakaslearen hitzetan, oso ongi funtzionatzen baitute metodologia honekin. Bestalde, metodologia ia guztiak komunikazioa garatzekoak dira; PECS, Teacch metodoa, Monfort metodoa…, bestako ikasleek ez baitute hitzezko komunikaziorik.

Gela alternatiboan teknika psikologiko ezberdinak erabiltzen dituztela konturatu nintzen, haurren atentzioa edo jarrera egokiagoa lortzeko asmoz. Adibidez, tutoreak askotan txalo bat jotzen zuen ikasleen atentzioa bereganatzeko. Ikasleak askotan erreakzionatzen zuten, baina beste batzuetan ez. Bestalde, ikasleetako bati musika

asko gustatzen zitzaion, orduan irakasleak ikaslea despistatuta zegoela ikusten zuenean, musika jarri eta segituan atentzioa jartzen zuen.

Erabiltzen duen beste tekniketako bat beti ikasleen eskuinean kokatzea da. Tutoreak adierazi zidanez, honekin autoritatea tutoreak berak izatea lortzen du.

Azkenik, irakasleak esaten duena beti betetzea oso garrantzitsua dela ikusi nuen, honekin irakasleak sinesgarritasuna galtzen ez duelako. Honi esker ikasleak irakasleak zerbait esaten duenean dioen bezala izango dela ikasten du.

# ONDORIOAK

